


OÑATIEKIALDEA SL-Gi-10 Aloñapeko ibilbidea
8,5 km-erraza-2:00'

Ohiko ibilbide honetatik Oñatiren ikuspegi zabala dugu. Erdigune historikoan hasi eta nekazaritza giroko auzoetatik igarotzen da, eta altxor natural eta etnografiko ugari gozatzeko parada izango dugu. Interesguneak: Zumeltzegi dorrea (Erdi Aroa) eta Larraña, Oلابarrieta eta Murgia auzoak.



Hasiera: San Anton kalea




OÑATI MENDEB. PR-Gi-107 Garagaltza auzoari itzulia
6,5 km-erraza-2:00'

Ibilbide honetan Oñatiko haranaren ikuspegi interesgarria izango dugu begien bistan. Hirigunetik abiatu eta Garagaltza auzoko baserri multzora joango gara herriaren inguruan dauden bidezidor eta bide zahar batzuetatik. Interesguneak: Oñatiko gune historikoa, Garagaltza auzoa, Usako aisia gunea.



Hasiera: GI-2630 errepidearen sarreran




ARAOTZ PR-Gi-102 Uraren ibilbidea
11,5 km-erdi mailakoa-4:30'

Araozko sei auzotatik igarotzen den ibilbide honek nekazaritza mundura eramango gaitu lehenbizi, gero paregabeko ikuspegiak eskainiko dizkigu. Aitzuloko harpe magikoa ikusi ondoren, Araozko depositora iritsiko gara eta handik erraz joango gara Gurutze Santuaren ermitara. Andarto Txikitik gero Araoz aldera egin eta baserri inguratuko gara berriro. Interesguneak: Araozko San Migel parroikia, Gurutze Santuaren ermita, Elortza jeneralaren jaiotetxea, etab.




Hasiera: Araoz auzoan




ARRIKRUTZ PR-Gi-103 Kontrabandisten bidetik
8,5 km-erdi mailakoa-3:30'

Edertasunez beteriko ibilbide honetan Kalahorrarako galtzada zaharretik joango gara hasieran eta gero Madina auzunera abiatuko gara. Ibilbide honek Arantzazuko eta Araozko auzoak lotzen ditu, eta Jaturabeko inguru paregabeetatik igarotzen da. Interesguneak: Arrikruz, Kalahorrarako galtzada, Jaturabe, etab.



Hasiera: Oñati-Arantzazu errepideko 6. km-an.



SLG-Gi-10




PR-Gi-107



PR-Gi-102



PR-Gi-103



Ibilbidearen señalizazioa

- Norabide zuzena
- Okerreko norabidea
- Norabide aldaketa



PR-Gi-104



PR-Gi-105



PR-Gi-106




Ibilbidearen abiapuntua

KORTAKOGAIN PR-Gi-104 Arantzazuko baserrietan barrena
5,5 km-erraza-1:30'



Hasiera: Oñati-Arantzazu errepideko 6. km-an.

Arantzazuko auzo gehiena igarotzen duen ibilbide honek nekazaritza mundura garamatza hasieran eta gero Okola eta Iritegi txokoetara. Errota historiko baten ondokigara eta abiapuntura inolako zailtasunik gabe iritsiko gara, kanal baten gainetik joanda. Interesguneak: Arrola, XVIII. mendeko baserria; Okolako sakonunea, Akuegiko zubia eta presa, etab.




ARANTZAZU PR-Gi-105 Ezkutuko bidea
7 km-erraza-2:30'



Hasiera: Sindika Hotelaren ondoan.

Ibilbide honi esker Arantzazuko txorrik ezkutuenak ezagutuko ditugu. Arantzazu ibaiaren mehakara jaitsiko gara, Iturrigorri igaro ondoren, Arrianoako gailurra inguratuko dugu; inguru horietako baso paregabeak zeharkatu eta bi korta ikusiko ditugu. Interesguneak: Arantzazuko basilika, Gazteluaitz tontorra, Arantzazuko trokartera, etab.




ARRASATE-ARANTZAZU PR-Gi-106 Erromesbidea
16 km-zaila-5:00'



Hasiera: Arrasate-Mondragón

Arrasaten hasi eta Arantzazun amaitzen den ibilbide hau besteak baino luzeagoa eta zailagoa da. Erromesen ohiko bidea da, eta hiru udal-errietako sailetatik igarotzen da: Arrasate, Aretxabaleta eta Oñati. Bedoña eta Larrino auzoak, Urkuluko urtegia, Urruxola auzoa, Orkatzategiko hegala, Jaturabeko arroila harrigarria eta Arrikruz eta Gesaltzako garai bateko bentak igaro ondoren iristen da Arantzazura antzinako galtzadaren tokitik. Interesguneak: Santa Eulalia parroikia (Bedoña), Orkatzategiko harkaitzak, Gesaltza-Arrikruz galeriak, etab.



AIZKORRIRA IGOERA Urbiako zelaietatik
820 m-ko desnibela-zaila-2:00'



Hasiera: Arantzazuko Santutegia

Urbiara igo eta handik Aizkorriko puntara joango gara. Aizkorri da, hain zuzen, Gipuzkoako mendirik esanguratsuenetakoa, Atlantikoko eta Mediterraneo uren mugalerra da eta Mariren mendi mitologikoa. Arantzazuko aparkalekutik abiatu (708 m) eta ordubetean Urbiako zelaietara eta ostaturia iristen da eta beste ordubeteko behar da Arbelarko txabolen ondokigara Aizkorriara (1528 m) joateko.

